

Presoak eta errefuxiatuak ezin ahortzi

Horiek gogoan hartzeko, larunbatean egun berezia antolatu da

Urte guztian egiten diren lanak egun batzuz atzean utzi eta jaiak murgiltzen dira herriak festa egunetan. Guztiak ahalik eta lasaien igarotzen, kezka, egunerokotasuna eta lana atzean utziz, egun gutxi batzuetarako baldin bada ere. Hori lortzea ez da gutxi izaten, eta horregatik hartzen dira hain gustura herriko jaiak.

Hala ere, aldarrikapenak ere beren lekua izaten dute, eta badira ahortzi ezin daitezkeen kontuak. Horien artean, presoak daude. Usurbilen azken urteotan horiei eskainitako eguna ospatzen da, eta aurten larunbatean egingo dute preso eta errefuxiatuak gogoan hartzeko ekitaldia. Egunduan osoan dultzaineroak eta trikitilariak karrikaz karrika ibiliko dira. Goiz partean eskualdeko presoak egindako eskulanen erakusketa jarriko da plazan, goizeko 10:00etatik 14:00etara. 11:00etan *Utzi bakean Euskal Herria* martxa egingo da kalez kale.

Zikiri jana, herriarren bilgune

Eguerdian partean Iparraldeko Kuxkuxtu txaranga karriketan barrena ibiliko da giroa alaitzen, eta eguerdian bazkaritara bilduko dira usurbildarrak. Zikiri jana egiten da egun horretan.

Arratsaldean, koadrilen artean herri kirolak egiten dira, hainbat lagun talderen parte hartzearekin. Parte hartzerak zein ikustera plaza- ra joandakoen kopurua ez da makala izaten.

Beltran eta Ttan Ttakunen emanaldia

Arratsaldean ekitaldi aski berezia izango da: Jose Mari Beltran eta Ttan Ttakun taldeek Euskal Herriko musika tresnak hartuta emanaldia eskainiko dute pilota lekuan. Hori da aurtengo jaietako berrikuntza nagusietakoa.

Ondoren, preso eta errefuxiatuei omenaldia egingo



Herriko gazteak plazan elkartzen dira arratsaldean, zikiri jatearen ostean herri kirolekin parte hartuz.

Jaiek egunerokotasunetik ihes egiteko balio arren, badira ahortzi ezin diren kontuak, preso eta errefuxiatuena tartean

zaie, eta horien omenez manifestazioa egingo da.


Omenaldi hori prestatzen txosnetako batzordekoak aritu dira buru-belarri. Omenaldiaren ostean, musika hartuko du berriz ere plaza ingurua, azken aldian Euskal Herrian sona handia hartzen ari den kantari baten eskutik: Mikel Urdangarin. Kantu lasaiak eskainiko ditu zornotzarrak arratsaldeko 20:30etan plazan.

Segidan, eta pilotalekuan bertan, bertso saioa izanen da Oihane Enbeita, Andoni

Egaña, Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbiorekin, guztiak Jose Mari Izetaren gidaritzapean. Bertso saio horrekin batera Santixabeletako XXIII. bertsopaper lehiaketako sari banaketa egingo da.

Laiotz taldeak girotuko ditu gauerdian plaza inguruak, eta hau amaitutakoan diskoteka jarriko da martxan goizalde arte.

Harrera ezin hobea izaten du aire librean egiten den diskoteka honek, eta giro berezia sortzen da, ezbaierik gabe.



OLKAR

Juan Agustin Lasagabaster Flamarique

Inprimategia

Ugaldea Industrialdea, 1 - 1.

Tel. eta Faxe: 943 371 691

20170 USURBIL (Gipuzkoa)